



I. EUSKARAREN BILAKAERA

1. LEHENAGOKO INKESTAK

XIX. mendeko zenbaki batzu baditugu Iparraldeko euskaltasunaz: 1807an Coquebert de Monbret-en arabera 108.000 euskaldun baziren. 1857 Francisque Michel-ek zion 140.000 euskadun bazirela eta Louis Lucien Bonaparte-k kopuru bera aipatzen du. Pedro de Irisarrek ez zuen sinesten eta Ladislao de Velasco-k 1863an eman zenbakia onartzen zuen: 80.000 euskaldun. Berak ere 1970ean inkesta bat egin zuen Euskal Herri osoan, lekuko asko hartuz parropietan, herriko etxeetan, irakasleengan. Aurten, 16 urtez gorakoentzat egin den soziolinguistika ikerkerketarekin konparaketa egin dezakegu.

	A Jendetza	B Euskaldun	D Erdi euskaldun	B/A Arabera	B+D/A
1868 (Velasco)	165.000	80.000		%48	
1970 (Yrisar)	217.888	77.848		%36	
1996 (16 urte)	212.400	56.300	19.800	%27	%36

Metodologia ezberdineko ikerketak konparatzea arriskugarri da. Halere eta Velascoren zenbakiari fidagarritasuna emanez, ohar zenbait egin ditzazkegu :





a) 130 urtez euskara mintzaten eta gutienez ulertzen dutenen kopurua berdintsu gelditu denean, ehunekoa 8 punduz jautsi da, jendetze gehitzearen gatik.

b) Azken 30 urte hauetan euskararen kalitatea gibelatu da : euskaldun osoen ehunekoa 9 punduz jautsi da, kopurua berdintsu egon bada ere erdi-euskaldunak konduan hartuz. Asma dezakegu hemengo erdi-euskaldunak erdalduntzen ari diren euskaldunak daitezkeela, hegoaldean "elebidun hartzaileak" euskalduntzen ari diren erdaldunak direlarik.

c) Denbora berean, jendetzea anitzez goratu da : 1868an 165.000 biztanle, 1970ean 211.888, 1982an 236.963, 1990ean 249.600. Jendetze aldaketa hori ez da euskararen alde gertatu. Alabainan, barnealdeko herritar euskaldunenak Ameriketara edo Parisera zoazilarik, etorkin erdaldunak kostaldeko hirietan kokatzen ziren.

Batzuk modernitatearen teoria baliatzen dute euskararen atzerakada esplikatzeko. Diote badagoela alde batetik nortasun tradizionala, betidanikakoa, lurrari eta ohiturei lotua: euskaldun fededun, etxea eta laborantza. Hain zuzen euskara da zibilizazio tradizionalari lotua. XVII. eta XIX. mendetan agertu zen modernitatea : argitasunen filosofia erlisioen aurka, industria laborantzaren aurka, teknika berriak ohituren aurka. Askatasun indibidualak lekua hartu dio nortasun kolektiboari. Hiriko bizitzak ordezkatu du herrixketako bizi moldea. Hain zuzen, modernitatea frantsesez sortu zen, Iraultzaren denboran eta gero eskolaren bidez.





Orduan agertu da hizkuntz borroka edo elebitasun lazgarria. Alabainan Euskal Herria orokorki hartuz ez zen modernitatean sartu. Bere nortasun tradizionalan gelditu zen. Zinez euskaldunek hizkuntz sufrikarioa pairatu dute : euskara maite eta frantsesa erabili behar ongi bizitzeko. Hiru gauza gertatu dira : 1) Notableek egiten zuten bi zibilizazioen arteko zubia, berak herritarrak izanki bainan frantsesez eskolatuak. 2) Euskaldun guziak elebidun bilakatu gara gure herria modernitatean sartzeko. 3) Gurasoek ez diete hurrei euskara irakatsi hizkuntz zauria ez nahiz transmititu. Egia erran, seme-alabengan nostalgia sortu dute eta herri hizkuntzaren ikasteko nahia piztu ahalgerik gabe.

Itxuraz holako zerbait gertatu da. Bainan erran dezakegu ere teoria hori ez dela esplikazio zientifiko bat, Iraultza denborako ideologiaren errepika baizik. Alabainan Pariseko hizkuntz politikaren ondorioz, herri hizkuntzak komunikabide modernoetarik kanpo atxikiak izan dira, nola eskolan hala zerbitzu publikoetan. Bestela gerta ziteken federazio gogo pixka batekin. Suisan, Katalunian, Danimarkan, Quebecen herri hizkuntza txikien bidez modernitatean sartu dira, oldartu baitira estatuaren glotofagiaren aurka.

2. FRANTZIAKO HIZKUNTZ ARAUDIA

Hizkuntz arau nagusia zen 1539an François I erregeak Villers-Cotterêts hirian hartu zuen erabakia: akta publiko guziak frantsesez idatziko zirela eta ez latinez. Iraultza denborako Konbenioak, Gregoiren inkestaren ondotik, elebakartasun ofiziala indartu zuen irakaskuntza publikoan (1793) eta justiziaren alorrean (1794). Gero 150 urtez, erreinu, errepublika ala inperio, gobernu guzien helburu nagusia Frantziaren





frantsestea izan zen, administrazioaren eta eskolaren bidez, soldadogo eta gerla denboretan. Halere eskualdetako hizkuntzek iraun dute, tokiko politikarien eta kulturzaileen laguntzarekin, adibidez Okzitanian Felibrige elkarteak. Oinarrizko ideologia zen aberri txikia aberri handiaren lagungarri zela.

Eztabaida luze baten ondoren, 1951an legebiltzarrak bozkatu zuen Deixonne legea, tokiko hizkuntzen, dialektoen eta kulturen ikaskuntza onartuz eskolan, bigarren mailan eta unibertsitate batzutan (adibidez euskara eta euskal literatura Bordelen irakasten ziren). Ikaskuntza hori hautuzko ikaskuntza zen bakarrik, errepublikaren batasunari kalterik ez egiteko.

Arrazoin beraren gatik, geroztik idatzi diren 40 hizkuntza lege proiektu ondorioz gabe egon dira (ikus zerrenda, Grau, 408 - 411 orr.) eta gobernuek ez dituzte sinatu Europako Parlamentuaren edo Kontseiluaren erabakiak : Koejpers erabakia 1987, Hizkuntza gutxituen eurokarta 1992, Kililea erabakia 1994.

Ukamen horien estakurua da ezin dela tokiko hizkuntza sar erakunde publikoetan. Ikaskuntza ere hautuzkoa da. Eskararik ez bada ikaskuntzarik ez da. Arau honek oinarri konstituzionala dauka : lurralde hizkuntzak nahitezkoak balire, hizkuntz elkartek ofizialki sortu laitezke. Egoera horrek hautu lezake errepublikaren "batasuna eta ezin-zatitasuna". Alabainan mito fundatzailearen arabera, bitarteko erakunderik ez dago estatuaren eta herritar bakoitzaren artean. Lege berezirik ezin da onartu. Guk badakigu lege bereziak badirela hiri eta lurralde askotan : Parisen, Alsazian, Korsican, Kaledonia berrian etab. Orain arte herri hizkuntzak gutituak dira hain zuzen berdintasunaren izenean.





Deixonne legea ere ondoriorik gabe egon zen 18 urtez, Hezkuntza nazionalak ez baitzuen erabakirik hartzen. Halere elkarte batzu sortu ziren herrialdeen nahia adierazteko, adibidez Ikas 1959an. 1968-ko iraultza txikiak eskualdeak harrotu zituen, Okzitanian, Bretainian, Alsasian. Hemen ere 1969. urtean izendatu zen lehen irakasle ibilkaria eta sortu lehen ikastola Arrangoitzen.

Geroztik herri hizkuntzen aldeko hezkuntza araudiak ugaritu dira, bai Giscarden denboran (Haby legearen 12. artikulua, 1975), bai sozialisten denboran (Savary gutuna 1982) eta azkenik F. Bayrou-ren ministeritzapean (Darcos gutuna 1995, Irisarriko mintzaldia 1996). Anartean Konstituzioari emendakin bat gehitu zioten: "Frantsesa da Errepublikaren hizkuntza" eta Toubon-en legeak frantsesari ematen dio komunikazio alorreko leku kasik osoa salbuezpen txiki bat eginez tokiko hizkuntzentzat.

Komunikabidei buruz, 1982ko audiobisualaren legeak herri hizkuntzak onartu zituen zerbitzu publikoan. Bestalde Estatuaren monopolioa kendua baitzen alor horretan 3 euskal irrati antolatu ziren Iparraldeko 3 herrialdetan.



3. PIZKUNDEA

Euskaltasunaren berpizte bat gertatu da 1980ko hamarkadan. Politika giroa aldatu zen sozialistek hauteskundeak irabazi zituztelarik. F. Mitterrand presidentgaiaren 110 proposamenetarik bi gure alde ziren : 54. euskal departamenduarena eta 56. herri hizkuntzena. Sinetsi genuen gogoan baitgenuen Lorient hiriko mintzaldia : "Ezberdintasunaren eskubidea aldarrikatzen dugu. Garaia onarmena emaita Frantziako kulturei eta hizkuntei. Garaia da eskolako atea zabal zabala irekitzeko..."

Euskara eta euskal kulturaren ihardunaldiak bildu ziren Euskaltzaindiak eta Ikas elkarteak gomiturik. 26 elkartek sinatu zuten "Pour un statut de la langue et de la culture basques". Lehen aldikotz egitarau oso bat definitu genuen. Sozialisten hizkuntz lege proiektua eztabaidatu genuen. Baina arrakastarik gabe : euskal departamendurik ez, hizkuntz legerik ez.

Ondoko urtean, kultur elkarte gehienak Pizkundea federazioan elkartu ziren programa bildu baten eramateko. Ondorioz puntu batzuetan lortuak izan dira : ikastolen diru laguntza publikoa, Euskal Herriko kultur etxea (sorrera 1984ean). Baina, eskuindiarrek lege biltzarrean nagusitu zirelarik, aurreratze guzia dilindan jarri zen.

1988an Pizkundeak Euskaldungoaren 2. Ihardunaldiak bildu zituen "Euskaldunen eskubideak" lemapean. Alabainan Europako parlamentuak Kojpers erabakia bozkatu zuen hizkuntza gutituen alde. Punduz puntu textua Iparraldeko egoerari aplikatua izan zen: euskal ikaskuntza, komunikabideak, kulturagintza,





ofizialtasuna. Araberako buxeta (presupostua) batean beharren finantziamentua zenbatu zen. "Deiadar" elkarretarartzea egin zen Baionan eta lehen aldikotz hautetsiek ere parte hartu zuten. Negoziaketa luze batzuren ondotik, besteak beste, bi erakunde publiko sortuko dira 1990ean : Euskal Kultur Erakundea eta Herrien arteko Sindikata, kasik herriko etxe guziak bilduz euskal kulturaren sustengatzeko.

1994ean "Deiadar" mugimenduaren izenean 3. Ihardunaldiak bildu ziren eta "Euskararen Agiria", "Manifeste pour la langue basque" plazaratua izan da, euskararen ofizialtasuna lema nagusitzat hartuz eta familien eta elkarten euskalduntzeko gomita luzatuz. Deiadar eta Pizkundea bateratuko dira "Euskal Federazioan" Euskararen Agiria helburutzat hartuz. Denbora berean "Euskal Herri 2010" gogoeta orokorra abiatu zen alor ainitzetako herriko arduradunak elgarretaratuz : ekonomia, zerbitzu publikoak, kultura, lurralde antolaketa.





II. EGUNGO EGOERA

1. EUSKAL IKASKUNTZA

Hiru ikaskuntza sare baditugu : ikastetxe publikoak, pribatuak eta Seaskako ikastolak. Seaskan D ereduak erabiltzen dute : dena euskaraz frantsesa gero eta gehiago sartuz. Beste ikastetxeetan, edo B ereduak dute astean 12 oren euskaraz ikasiz, edo A ereduak astean 3 orenez euskara ikasiz, edo dena frantsesez (X ereduak). 1996 - 1997 ikasurteko emaitzek erakustera emaiten dute 1. mailan % 14 ikaslek B edo D ereduaz baliatzen direla, % 10 A ereduan daude eta % 76ek ez dutela euskal ikaskuntzarik.

	1. maila B edo D	2. maila B edo D	1. maila .A ereduak	OROTARA
Publikoak	1721	212	1614	3547
Pribatuak	755	95	1000	1850
Seaska	1184	351		1535
OROTARA	3660	658	2614	6932





1. mailako hiru ereduentzat banaketa ez da berdina leku batetik bestera. Garapen Kontseiluak ikaskuntzaren egoera aztertzeko 4 eskualde bereizi ditu : Baiona - Angelu - Biarritze (BAB), Lapurdi barnealdea (LAP-B.), Baxenabarre eta Zuberoa elgarrekin (B-N + Z.) eta Bidaxun aldea (BIDAX). Hona ehunekotan nola banatzen diren biztanleak, . mailako ikasleak eta euskal ikaskuntzako 3 ereduak :

	IPAR.	BAB	LAP-B.	B-N + Z.	BIDAX
Jendetzea	250.000	% 48	% 32	% 14	% 4
Ikasleak	25.000	% 44	% 35	% 17	% 4
Ereduak (Euskal erakaskuntza)	6.000	% 11	% 55	% 34	% 0

BAB hirialdean dira haur gehienak eta euskal ikasle gutienak. Lapurdi barnealdean daude eskola elebidun eta ikastola gehienak. Baxenabarren eta Zuberoan ikasle askok euskara ikasten dute baina gehienek A ereduari eta ondorio gutirekin.





2. mailan, gela elebidunetan gai nagusi bat euskaraz egiten dute. Bestalde orotara 1.000 ikasle inguru euskara ikasten dute 2. edo 3. hizkuntza bezala, hastean oren batez astero eta gero 3 orenez.

AEK elkarteak derama helduen euskalduntzea eta alfabetatzea. Aurten, 1200 ikale dituzte, 18 gau eskoletan eta euskaltegietan. Iragan urtetik % 12ren aitzinapena izan da. Orotara 10 arduradun profesional dira eta beste ehun bat irakasle kitorik. Diru laguntza publiko guti ardiesten dute. Eskakizun nagusia da AEK ikaskuntza erakunde bezala onartua izatea.

2. KULTURGINTZA

Eukal kulturgintza elkarteek eta kulturtzaleek deramate alor guzietan : antzerkia, bertsolaritza, literatura, arte ederrak, musika, entzun-ikusgaiak, ondarea... 1990 geroztik, Euskal Kultur Erakundeak laguntzen du sorkuntza, zabalkuntza eta formakuntza koordinatzen. Profesionaltasuna ere aitzinatu da finantziamendu jarraikiaren bidez. Eta bada oraindik zer egin. 1993ko inkesta batek erakusten du Iparraldean 80 milioi libera (2.000 milioi pta) baliatzen direla kulturgintzarako, erdia udalek ordaindurik. Finantziamendu horren % 14a bakarrik doa euskal kulturarentzat eta % 9a lurralde barnealdera. Ikus daitekenez, zati handi handiena frantses kulturarentzat da eta kostaldearentzat. Desoreka horren zuzentzea EKEren helburu bat da.

Kultur erakunde bakarra delakotz, bere eremuan sartzen ez diren eginbide asko bete ditu eta betetzen ditu oraino Euskal Kultur Erakundeak : euskararen onarmena, komunikabideak, pedagogi zerbitzuaren antolaketa besteak beste. Gaurregun, Garapen Kontseiluak bere gain hartzen ditu bide horiek eta Euskal





Kultur Erakundearen helburua, kulturgintza sare baten sailka eta guneka antolatzean mugatuz doa : adibidez, museologia koordinatua Euskal Erakustoki berrituaren inguruan, kultur hedapenari dagokionez antzokiak eta hauei lotuak izango diren kultur proiektuak eskualdeka, Xirrixta eta Kometaren antolaketa autonomoa...

Hizkuntz antolakuntzaz jabetuko den zerbitzu berezi baten sorrera gutiziatzen eta aldarrikatzen duen denbora berean, euskararen erabilera publikoaz arduratzen da Euskal Kultur Erakundea. Euskaltzaindiaren laguntzarekin, lan asko egin du bideetako eta hirietako seinalaketa elebiduna lagunduz, jotorrizko toponimia ezagutaraziz, itzulpen asko eginez. Bertzalde, 1996 urtean, hizkuntz politikaz arduratzen diren hegoaldeko gobernuetako zerbitzuen eta Akitaniako I.N.S.E.E. estatistika erakundearen laguntzarekin, Euskal Kultur Erakundeak bideratu du iparraldean egin den bigarren inkesta soziolinguistikoaren datu bilketa (ikus heldu diren atalak).

Horiek hola, kultur sorkuntza eta kulturgintzaren alorrean neurtu beharko dira geroan Euskal Kultur Erakundearen helburuak. Euskalgintza, irakaskuntza, komunikabideen saila eta ondareak, erakunde eta koordinazio bereziak beharrezkoak dituzte egiazko hizkuntz eta kultur antolaketa baten barruan.





3. SOZIOLINGUISTIKA IKERKETA

Aurtengo urrian zabalduak izan dira bigarren ikerketa soziolinguistikoak iparraldeari buruz agertu dituen emaitza adierazgarrienak. Lagina lurraldearen hiru zatitan onartua izan zen: BAB (109.000 biztanle), Lapurdi barnealdea (101.000 b;), Baxenabarre eta Zuberoa elgarrekin (40.000 b.) Zehaztasunak, "Ahuleziak" eta "Indarguneak" atal buruetan agertzen dira.

Laburpen txiki bat emaitekotan eta katastrofismora ez erortzeko, 4 puntu pozgarri eta 4 puntu lazgarri azpimarra nitzazke.

- Puntu pozgarriak: 7 herrialde konparatuz hemen ditugu 2 herrialde euskaldunenak, Zuberoa eta Baxenabarre. 3 lurraldeak konparatuz, Iparraldean dago euskaldun osoen ehuneko gorena, % 27 ; bai eta euskararen aldeko jarrera baikor handiena, % 49 ; bai eta ere euskararen aurkako jarrera ezkor txikiena, % 14. Zorigaitzez bada beste oharrik.

- Puntu lazgarriak: Euskararen beherekada bereziki gazteengan; familietako transmisio falta; euskararen erabilera urria salbu leku tradizionaletan familian, merkatuan, parrobian; euskarari buruzko axolagabe handia, % 39. Horrek erran nahi du badela kontzientizazio lan indartsua egiteko eta lehenik euskaldunei buruz.





III. AHULEZIAK

Ipar Euskal Herriko euskalgintzaren ahuleziak agertzen dira batzu erakundeen aldetik, besteak hiztunen aldetik. Denbora berean aterabideak ere aipatu behar ditugu.

1. ONARMEN PUBLIKOAREN FALTA

Ipar Euskal Herrian euskararen erabilera eskubide indibiduala da, Frantziako konstituzioak zaintzen duen oinarrizko libertate bat, erlisioa edo filosofia bezala. Errepublikaren hizkuntza frantsesa da eta horrek dauka eskubidezko onarmen publiko bakarra. Eskualdeetako hizkuntzek ez dute tokirik ez administrazioan, ez eta ere zerbitzu publikoetan. Arrazoi berarentzat euskararen ikaskuntza hautuzko gaia da eta ez beharrezkoa frantsesarena bezala.

Onarmen publikoaren falta ahulezia da euskararentzat, baitakigu lanerako edo zerbitzu publikoetan erabili behar den hizkuntza ikasten dela. Gizarte motibazioek indar handia dute, adibidez lanpostu baten ardiesteko euskara beharrezkoa delarik Euskadi Autonomoan bezala. Hemen euskararen ikaskuntza familiak duen atxikimenduari eta betiereko militantismoari lotuak dira. Aterabide bat da tokiko administrazioengandik euskararentzat onarmen publikoa ardiestea de facto, bide seinalakuntzarentzat egin den bezala.





2. NEURRI ESKASAK ETA DIRU FALTA

Botere publikoek ahalik eta leku txikiena ematen diote euskarari erakundeetan, eskubide indibiduala betetzeko doia : nahiz urratsak eginak izan diren azken urte hauetan, orohar euskara irakaskuntzan guti erabilia da ama eskolatik unibertsitateraino, denbora sinboliko bat badauka komunikabide ofizialetan, dakigularik zein den mass medien eragina entzun-ikusleengan : egunero oren bat irratia ofizialean, eta 2 minuta telebista ofizialean.

Erakunde publikoek ez badituzte herri hizkuntzak zaintzen, elkarte pribatuek bete behar dute eginbide hori. Hemen ere aterabidea hertsia da. Alde batetik erakunde ekonomikoen erizpidea errentabilitatea da: saltegiek seinalakuntza elebiduna ezarriko dute erosleen ekarrazteagatik, bainan langilei formakuntza elebidunen eskaintzea ez da bideratzen. Bestalde kultur edo informazio erakunde pribatuek diru publikoaren beharra badute. Alabainan, irratiek edo kultur etxeek ez dute profesionaltasunaren segurtatzeko mozkinik aski ematen.

3. EUSKARA GAZTEENGAN

Euskarari buruzko gaitasuna adin sailen arabera aztertu delarik, ohar lazgarria da Iparraldean euskara gain behera doala. Aldiz eta zorionez, Hegoaldean petik gora doa bizitasun handiz. Iparraldeko jendea gazteago eta erdaldunago dela, Hegoaldean alderantziz delarik. Hemen zaharrago eta euskaldunago





garelarik, han gazteago eta euskaldunago dira. Bigarren egoera honek itxaropen handia ematen digu euskararen geroaz. Hona euskara ongi dakitenen ehunekoak hiru lurraldeetan. Hiru sail hartzen ditugu adinaren arabera : 65 urte eta gehiago, 35 - 49 urte, 16 - 24 urte, eta 15 urtez petik.

	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Gaztetxoak	OROTARA
Iparralde	37 %	27 %	11 %		27 %
Euskadi A.	29 %	21 %	33 %	45 %	25 %
Nafarroa	10 %	9 %	11 %		10 %

Zenbaki horiek irakasten digute neurri eskasak hartzen direlarik, gauzak doazen bezala utziz, gainbeherak jarraitzen duela, Iparraldean gertatzen den bezala. Baina herri hizkuntzen beherakada ez da ezinbestekoa, ez da fatalitate bat. Hizkuntz politika orokorra antolatzen delarik arriskuan diren hizkuntzen garatzeko, ondorio miresgarriak agertzen dira. Nabari da Euskadi Autonomoan, 21etik 33ra eta orain 45era igaiten delarik euskaldunen kopurua. Gauza bera Nafarroan, neurri txikiagoan.





Gaztetxoan emaitzak ez dauzkagu oraindik. Halere datuen lazgarritasuna ezitzeko, erran dezakegu oraingo gurasoen haurren %12 badabiltzala ikastoletan edo ikasgela elebidunetan. Bestalde 35 urtetik 16 urte arte beherakada nolazbait baretu da. 35-49 urtekoengan euskaldunak % 27 dira. 25-34 urtekoengan euskaldunak %14 dira gehi %13 elebidun hartzaile. 16-24 urtekoengan % 11 gehi % 13. Erdi eskualdunek euskaldungoa hein batean atxikitzen dute.

Alabainan beste oharra hau da gazteen artean egiazko "elebidun" baino "elebidun hartzaile" gehiago dela. Hauek dira euskara ulertzen dutenak eta zerbaitxo hitzegiten. Hots euskalduntzen ari diren erdaldunak eta erdalduntzeko bidean diren euskaldunak. Inkestak ez digu erakusten zein diren batzuen eta besteen neurriak. Dena dela ordu da ikaskuntzaren bidez euskararen garapena etor dadin.

4. HIZKUNTZA KONTZIENTZIAREN FALTA FAMILIETAN

Euskarazko gaitasuna gain behera esplikatzeko ikusi behar da zer gertatzen den familietan. Gauzak hurbilagoatik aztertuz nabari da familiak ez duela transmisio funtzioa betetzen. Jendetzea bost adin sailetan banatu da euskalduntasunaren neurtzeko, mutur batean 65 urtekoak eta gehiago, bestean 16 - 24 urtekoak. Sail bakoitzean euskaldunen, erdi-euskaldunen eta erdaldunen ehunekoak. Harbela zutabe bat arte irakurriz, belaunaldien arteko transmisioa agertzen da. Adibidez 1930 inguruan sortu diren euskaldunak % 37 ziren eta 10 puntu galdu dute, 1955 inguruko euskaldunak % 27 baitira. 1940ean sortu direnek euskararen erdia transmititu dute : orduan % 32 zirelarik, 1965ean % 14 ziren. Eta are gutiago 1955etik 1975 arte, %27tik %11ra jautsi baita euskaldunen ehunekoa.





Beste taula batek erakusten digu zein den inkestatuen lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntz gaitasunaren arabera. Aita eta ama euskaldunak direlarik %72rentzat euskara da lehen hizkuntza eta %11rentzat euskara eta frantsesa. Egiazko familia euskaldunetan ere euskara 17 punduz jautsi da. Aita edo ama erdalduna delarik, orduan haurren %79 hastetik frantximentak dira.

Euskara zein neurritan erabiltzen den familietan neurtzerakoan ikusten dugu euskara gehiago erabiltzen dela aitarekin edo amarekin (% 67) eta anai-arreben artean (% 65), ezinez eta senar emazteen artean (% 51) eta seme-alabekin (% 45). Hemen ere nabari da belaunaldia gazteago eta euskara gutxiago erabiltzen dela. Ez baita marka ona jarraipenaren segurtatzeko.

Lehen irakaspena da hizkuntz pedagogia baten beharra gurasoengan. Lehenagoko gizartean gauzak argiago ziren, hizkuntzen artean baitzen diglosia funtzionala. Baziren gune euskaldunak hala nola familia, auzoa, eliza, merkatua, eta gune erdaldunak eskola eta jandarmeria adibidez. Bi hizkuntzen beharra senditzen zen. Geroztik frantsesa sartu da lehenagoko gune euskaldunetan : familia erdalduna auzoan bizi da eta telebistak frantsesa sartu du familietan.

Gizarte elebidunean zer egin? Aita-ama euskaldun batzuk ere ez dute konprenitzen herri hizkuntzaren garrantzia. Nola gure nortasun kolektiboa aberastasun bat den, ezin ordezkatua. Alderantziz ikusten dute oraingo gizartean komunikatzeko frantsesa eraginkorrago dela. Komunikazio funtzioari nortasunari baino





garrantzia gehiago ematen diote. Ez dakite zer egin elebitasun egoera batean. Zeren eta elebitasuna orotan da. Aita euskalduna eta ama erdalduna, orduan nola hitz egin seme-alabekin? Inoiz ez dute entzun Ronjat-en teoria, mintzakide berarekin hizkuntza bera erabiliz, haurra bi hizkuntzez ongi jabetzen dela.

Gainera etxeko bizitzan lehentasuna familiako komunikazio lasaiak dauka. Bi hizkuntzen erabiltzea konplikazioa da. Orduan familian hizkuntz oreka bat bilatzen du urteetan zehar. Guraso euskaldunek lehen haurrarekin euskaraz egiten dute. Haurrak gutxiengoan baita. Bainan 2. haurra eskolara doalarik elebitasuna etxean sartzen da, anai arrebek ez baitute gurasoen beharrik, nahi duten bezala hitzegiteko. Azkenean hirugarren haurrarekin frantsesa nagusi daiteke mintzakideen gehiengoa aldatu delakotz. Fenomeno hau ongi aztertua da Canadian franko-ontarioengan. Guk ere familietako hizkuntz jokabideak hobeki ezagutuz, euskararen aldeko estrategia lasaiak eta eraginkorrak asma genezazke.

Eskola familien lagungarri da. Frantziako legearen arabera lekuko hizkuntzen ikaskuntza hautuzkoa da : ikastetxeak ikasleen edo gurasoen eskaerari erantzuten dio. Egoera hau aldatu arte, gurasoei da euskal ikaskuntzaren eskatzea beren haurrentzat. Hor ere bada pedagogiaren lekua ulertarazteko zein diren ikasbide eraginkorrenak eta ere kezka pragmatikoak lasaitzeko : "Matematikak lehenik euskaraz gero frantsesez, traba ote da azterketetan ongi heltzeko ? Ez ote da hobe ingelesa ikastea euskararen orde? Euskararak zer balio du lan postu baten ardiesteko?" Alabainan, Europako liburuxka batek dion bezela : "Gurasoen azken hautua pragmatikoa da, oso gutxitan sinbolikoa". Gain gainerik ikasleak nahitezko ikas-





gaietan ongi hel ditezen. Ikaskuntza elebiduna edo hezkuntza interkulturala gai teorikoak zeizkie, ez balin badiegu esplikatzen herri kultura dela nortasun garapenaren eta poztasunaren iturburu handienetarik bat. Gurasoen elkarrekin garrantzia handia dute gai honetan.

Familiek bakarrik ezin dezakete herri hizkuntza salba, familia gizartearen zati bat baita eta gizartearen itxurakoa. Gainera ez da elementu erabakitzailea, salbu hezkuntzaren eremu txiki batzutan. Gizarteak eman behar dio herri hizkuntzari bere lekua.

5. UNIBERTSITATEAREN FALTA IPARRALDEAN

Unibertsitatea da herri hizkuntzaren berreskuratzeko tresna garrantzitsua. Zer gertatzen da Iparraldean ? Gaurregun % 80 ikaslek baxoa ardiesten dute. Hemengo 8.000 gazte gai dira goi mailako ikasketen egiteko. Aldiz, Baionako campusean 1.700 leku dira, beste harenbeste ikasketa laburretan. Ondorioz, 5.000 gaztek beren unibertsitatea nahitez herritik kanpo egiten dute.

Ez du erran nahi gazte guzietan ikasketa guzietan beren herrian egin behar dituztenik. Bainan herri honek hartze du bere gazteria quota edo andana, hemengoak edo hangoak. Gazteri masa kritiko bat bada dinamikaren segurtatzeko. Historian zehar emigrazioak odol hustu du herri hau. Lurralde antolaketan lagundu gaituen bulegoak, Reflex izenekoak, irudi izigarria erabiltzen dute : herri honetan badabil punpa bat gazteen kanporatzeko eta zaharren barneratzeko. Gazteen kanporatzea galtze handia da ekonomiarentzat, kulturarentzat eta herri nortasunaren pizkortzeko.





Aldiz funtzesko Unibertsitate baten ondorio onak nabari dira :

1. Ikastetxe elebidunetako irakaslegaiak kurtso batzu euskaraz egin litzazkete, natur zientzietan, historian, geografian, matematiketan.
2. Pedagogia elebidunaren eta hizkuntz ikaskuntzaren saila antola litaikete IUFM, irakasle formakuntzarako institutuan.
3. Berehala 1.000 ikaslek ekonomi mozkinak ekartzen dituzte, Sony lantegi baten heinekoak, Gerorako lan postu sortzaileak Euskal Herrian finka litaizke.
4. Hegoaldeko ikasleekin eta irakasleekin trukaketak antola litaizke.





IV. INDARGUNEAK

1. EUSKARAREN ALDEKO JARRERA

Soziolinguistika inkestak agertzen duen berri on bat da, hemengo jendeek biziki gogo ona erakusten dutela herri hizkuntzaren alde, eta neurri indartsuak goitazten dituztela. Inkestatu guzietan, euskaldun ala erdaldunei, beren iritzia galdegin zaie ea hurrek euskara ikasi behar duten eskolan, elebitasuna nahi duten administrazioan, euskara gehitu behar den hedabideetan, ingelesa euskara baino baliagarria den ala ez. Emaitza horiek kurutzatuz erantzun baikorrak nagusitu dira.

- % 49 dira euskararen aldeko gogo ona adierazten dutenak.
- % 14 dira euskararen kontrakoak.
- % 37 axolagabeak dira. Hemen dago gizarte pedagogiaren tokia.

Zenbaki horiek frogatzen dute hemengo jendea prest dela euskararen aldeko neurrien onartzeko, nola eskolan hala administrazioetan eta hedabideetan. Hizkuntz politika orokorrean sartzen dira irakaskuntza, hedabideak eta gizarte erabilera arrunta eta ofiziala. Hizkuntz antolaketa programa bat onartu da Euskal Herriko Garapen Kontseiluan. Beharrezkoa da ere euskarak ardiets dezan berehalako onarmen publikoa. Agian laster zuzenbidezko onarmen publikoa ere bai, Chirak presidentak aurten Kenperren aditzera eman duenaren arabera.



2. EUSKAL IKASKUNTZAREN ZABALKUNTZA

Garapen kontseiluko arduradun batzurekin negoziatu ondoren, 1996ko urriaren 19an, Irisarrin egin zuen mintzaldian F. Bayrou, Hezkuntza nazionaleko ministroak aipatu zituen norabideak eta neurriak urrats handi bat litzateke (hauek hizkuntz antolaketa eskeman finkatuak izan dira) euskal ikaskuntza alorrean aplikatuak balira. Sei puntu azpimarratu ditu :

1. Euskararen eta euskarazko ikaskuntza eskeintzea lehen mailako haur guzietan, 5 - 10 urteko epean eta arabera neurriak hartzea berehala, berantenez 1997ko ikasurteko
2. Elebitasun sailaren irekitzea IUFM, irakasle formakuntzarako institutuan, 1997ko ikasurterako.
3. Hezkuntza nazionaleko inspektore elebidun bat izendatzea egitarau guziaren aitzinarazteko.
4. IKAS pedagogi zerbitzua indartzea, irakasle bat lan egiteko izendatuz.
5. Hizkuntza Kontseiluaren antolatzea "hilabete bat barne", arduradun publikoak, pribatuak, zientifikoak, elkartekideak, Hezkuntza nazionalekoak elgarretaratzuz.
6. Hizkuntza politikaz arduratuko den zerbitzu bat izan behar du Kontseilu horrek.



7. Baionako campusaren garapena, 2. eta 3. zikloak eta teknologia berriak sartuz.

Berari esan diogularik proiektu horrek urtero 40 irakasle berri suposatzen dituela eta jarraian 10 urtez erantzun digu "proiektu eredugarri bat gauzatu nahi duela lurraldeetako kulturen alde". Iraultza pedagogiko hau gertatuko den bai ala ez neurri handi batean guri dagokio.

3. HIZKUNTZ ANTOLAKETAREN ESKEMA

Garapen Kontseiluaren barnean lantalde bat antolatu zen euskaren aldeko hizkuntz antolaketa proposatzeko. Jende askok, 40 inguru, parte hartu zuten eztabaida interesgarri batzutan: euskaltzain, irakasle, hautetsi, elkartekide, bertsolari, kulturzale eta euskaldun soil. J. Fishmanen urraspideari jarraikiz proposamenak egin dira ez bakarrik ikaskuntza mailan, hedabideentzat ere, bai eta bereziki gizarteko erabikera arruntari eta ofizialari buruz. "Euskara da Euskal Herriaren berezko hizkuntza", baieztapen hau abiapundutzat hartuz, egitarau oso bat landua izan da.

Azkenean eskema bat egin dugu, neurri onargarri batzuz definituz. Garapen Kontseiluko biltzar nagusian (Uztaritze, 1996ko urriaren 26an), gehiengo handian onartua izan zen. Hona puntu nagusiak :

1. "Euskarazko eta euskararen irakaskuntza zabalitzea, lurralde osoa estaltzeko moldean". Lehentasuna emanen zaio BAB hiriguneari eta bereziki B eta D eredu eskainiko zeizkie ikasle.





2. "Euskara ikasteko eskaintza indartzea jende helduentzat, kultur eta lanbide mailako helburuekin". Alabainan gauregun ikasteko galdea, eskaintza baino handiago da.

3. "Euskaraz egindako seinaleak hedatzea, lurralde osoan ezartzea proposatuz, norabide seinaleetarik hasiz, herri txikietako barne-seinaletara helduz". Pundu honek uste baino garrantzi gehiago dauka, hizkuntzaren ikusgarritasunak eragin handia baitu, bai hiztunengan erabilera bultzatzeko, bai besteengan ikasteari lotzeko.

4. "Euskal komunikabideen sormena eta berrantolaketa sustengatzea, helburutzat hartuz interes publikoa duten hedabideak eta heien profesionaltasuna". Hemen aipatzen dira hiru euskal irratiak, bai eta zerbitzu publikoak, nola ETB hala France 3 Euskal Herri.

5. Hizkuntzaren Kontseilua izanen da euskalgintzaren eskemaz arduratuko den interes orokorreko erakundea. Barne izanen dira hautetsiak, irakasleen ordezkariak, unibertsitario eta euskaltzain batzu, elkartekide zenbait. Idazkaritza profesional batek eramanen ditu kontseiluan finkatuko diren egitarauak.



4. HERRI PROIEKTUA

Hizkuntz antolaketa herri proiektu orokor batean sartzen da. Euskal Herri 2010 prospektibaren ondotik, Garapen Kontseiluak lantaldeak bildu zituen gizartearen alor nagusiak aztertzeko eta proposamenak egiteko. Anartean Parisen bozkatu da lurralde antolaketaren legea, oinarritzat hartuz "herria (le pays), proiektu bat egiteko eta eramateko gai den lurraldea".

Guk idea nagusitzat hartu dugu nortasun kolektiboaren eta modernitatearen arteko dinamika. Hemen eta Herrikoa elkarreetan eztabaidatu ziren ideak baliatu dira Garapen Kontseiluan. Zazpi eskema idatzi dira eta biltzar nagusian onartu :

1. Azpiegiturak eta ibilbideak
2. Formakuntza eta goi mailako ikaskuntza
3. Kultur antolaketa
4. Hizkuntz antolaketa
5. Egoitza ta eguneroko bizitza
6. Ekonomia garapena
7. Ingurunea.

Orain textu osoa Hautetsien Kontseiluan dago. Hor daude maila guzietako hautetsiak, estatutik, Akitaniatik, departamenditik, herriko etxeetarik. Nork zer egingen duen eztabadatzan ari da.





Askok eskatu dute testu horretan argi zedin administrazioaren erreforma, Euskal Herriak ukan dezan bere nortasuna baloratuko dituen lege eta erakundeak: euskararen onarmen publikoa, laborantza ganbara, unibertsitate autonomoa, euskal departamendua. Baina, hori ez da sartzen Garapen Kontseiluaren zereginetan, hautetsien esku gelditzen baitira erabaki horiek. Hots proiektua finkatua da, baina proposamanak gauzatzeko egitura falta. Dena dela elgarretaratze zabala egin da herriaz hitzegiteko. Zabalduden txostena hain segur datozen hauteskundeetako egitaraua bilakatuko da. Agian anartean ekimen asko sortuko dituelakoan.





V. PROPOSAMENAK

Bi atal nagusitan sailkatuak dira lanbideak:

- lehenik, iparraldeak gehienbatean beregain hartu behar dituen lanbide eta estrategiak,
- bigarrenik, mugaz bi aldeetako elkarlan batean bideratu behar direnak.

1. HIZKUNTZ ANTOLAKETA IPARRALDEAN

Gaurregun hizkuntz antolaketari dagokionez, gogoeta mamitsu eta bildu baten ondorioa eskutan dauka iparraldeak : hain zuzen, Garapen Kontseiluak idatzi dituen norabide garrantzitsuak. Gogoeta baliagarri horrek, harrigarriko lantegia ideki du eta epe labur zein ertainerako helburuak argiago ikusten dira. Hona, lehenago azaldu xehetasunen osatzeko, finkatuak izan diren lehentasunak :

- Hizkuntzaren Kontseilua xutik ezartzea 1997ko urtean euskararen aldeko eskemaren gauzatzeko. Egile ezdesberdinen arteko kontzertazio iraunkorra bermatu, euskararen alde eginen diren plangintzen jarraipena eta ebaluaketa, euskararen estatuari buruzko proiektuak sustengatu, horiek izan behar dira Kontseilu horrek bete behar dituen helburu nagusiak. Hizkuntz politikarako zerbitzu bat izan behar du erakunde horrek;





- Hezkuntza Nazionalarekin oinarritzko hitzarmen bat finkatzea lehenbailehen, Irisarrin Ministroak aipatu xedeen obratzeko egutegi zehatz baten barruan. Plan horren barruan, 1997ko ikasurte sartzeko lehen erabakien hartzea : Ikas Pedagogi Zentrua indartzea, inspektore elebidun bat izendatzea... ;
- Familietan hizkuntz gogoia sustatzea molde atsegín, moderno eta jarraiki baten bidez, Euskal Kultur Erakundearen eta Euskal Konfederazioaren arteko lanaren bidez besteak beste ;
- Euskararen presentzia (seinalakuntza publikoetan adibidez) eta euskararen erabilpena sustengatzea sozial esparru guzietan eta lehen lehenik herriko etxeekin finkatu eta gauzatu behar diren hitzarmen eta lan akordio batzuen bitartez.

2. MUGAZ GAINEKO ELKARLANA

- Erakundeen arteko harremanak.

Euskararen geroa sendotzeko, gizarte osoaren inplikazioa eta nahikeria behar beharrezkoa dela argi gelditzen da. Familian eta eskolan munduan bereziki edonorren axola izan behar da.

Baina, mugaz bi aldeetako herri erakundeen eta zerbitzu ofizialen arteko elkarlana ere premiazkoa da. Sare hori ere azkartu behar da. Azken urte hauetan urrats adierazgarriak eginak izan dira, iparraldean Euskal Kultur Erakundea sortuz geroztik bereziki (hor dugu adibide eredugarritzat hegoalde eta iparraldearen lankidetzari esker bideratua izan den 1996eko inkesta soziolinguistikoa).





Euskal Kultur Erakundeak lankidetzaz horretan jarraituko du. Jakinez, euskalgintzaren alorrean hain zuzen, Komunitate Autonomoa eta Nafarroako Hizkuntza Politikarako sailordetzentzat zuzenezko bitartekaria Hizkuntzaren Kontseilua izanen dela iparraldean.

- Umei eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko aldizkarigintzaren zaintzea

Duela lau urte, iparraldea engaiatu da Euskal Herri osoari eskainia den proiektu ausart batean : umei eta haur gazteeri zuzenduak diren euskarazko aldizkari atsegin eta moderno batzuen ekoizpenean eta hedapenean Kili-Kili eta Ipurbeltz-ek ideki ildoaren osatzeko eta berritzeko asmoarekin. Eta hain zuzen euskararen erabilera sustengatzeko nahikeriarekin bereziki familietan.

Badirudi, horrelako egitasmo baten bultzatzea okerkeria bat dela irudiaren eta teknologia berrien garai honetan. Halere irakurketaren zaintzea behar beharrezkoa da, euskaraz irakurtzea, jolastea, irri egitea. Hots, euskara erabiltzea molde ludiko batean.

Bertzalde, euskara batuaren geroa euskara bildu batean dagola pentsatuz, Xirrixta eta Kometa-n lan egiten duten idazle eta itzultzaileek Euskal Herri osoan ulergarria izateko hiztegia eta lukoziotegia urratsez urrats muntatzen ari dira. Pentsatzekoa da euskara estandarraren izaera azkar dezaketela era horretako esperientziak.

Epe laburrerako, mugaz bi aldeetako elkarlana gauzatzeko gai konkretua bezain inportantea.



3. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK

Gaurko mendean, irrati eta telebistak eragin handia daukate familietan besteak beste.

- Irratigintza

Garai honetan, lan handi bat bideratzen ari da iparraldean hiru euskal irrati (Gure Irratia, Irulegiko Irratia, Xiberoko Botza) lana molde batean edo bestean biltzeko. Emankizun kopuru inportante bat elkarrekin ekoiztea edota elkartrukatzea aipu da, egituraketa amankomun bat sortzea ere. Kalitatzeko euskarazko irratigintza baten azkartzea lehentasun bat da iparraldean, kostaldea eta Lapurdi barnealdea hobekiago hunkitzeko bereziki. Hegoaldeak, ekonomikoki eta teknikoki sustengatu behar du proiektu hau.

- Euskal Telebistaren hedapena segurtatzeko iparraldean urrats handiak eginak izan dira. Bertze ozka bat gainditu behar da orain: iparraldean gaur egiten den baino emankizun gehiago ekoiztu behar da ETBren eta France 3 kate publikoaren artean elkarproduktzio akordio batzu finkatuz. Bertzalde, Comedia kooperatiba eta Aldudeko entzun-ikus zentruaren egitasmoak hurbiletik aztertu behar dira eta araberako finantzabide eta laguntza teknikoak luzatu behar zaizkie.





VI. BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia: Euskararen liburu zuria, Bilbo 1978.

Euskaltzaindia: Hizkuntz borroka Euskal Herrian, Bilbo 1980.

Nuñez, L-C.: Opression y defensa del euskera, San Sebastian 1977.

Intxausti, J.: Euskara euskaldunon hizkuntza, Eusko Jaurlaritza 1990.

Eusko Jaurlaritza: Euskararen jarraipena, Gasteiz 1995.

Grau, R.: Les langues et les cultures minoritaires en France, Québec 1985.

Jauréguiberry, F.: Le basque à l'école, Pau 1993.

Heguy, Tx. eta Labat, Cl.: L'action culturelle en Pays Basque Nord, Ustaritz 1993.

Garapen kontseilua: Euskal Herriaren garapenerako eta antolaketarako eskema, Baiona 1996.

Commission européenne: Euromosaic, Bruxelles 1996.



Alain Viaut-ren zuzendaritzapean: Langues d'Aquitaine (1996).

Henri Giordan-ren zuzendaritzapean: Les minorités en Europe (1992).

